

GUGGENHEIM BILBAO

BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN POLITIKA

I. HELBURUA

Politika honen helburua da “GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN” (aurrerantzean, “GBM”) Barne Informazio Sistemari aplikatu dakizkiokeen printzipio orokorrak ezartzea. Horretarako, GBM honako erakunde hauek osatuko dute: “GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA”, “BILBOKO ARTE MODERNO ETA GARAIKIDEAREN MUSEOAREN UKANDUNA, SL” eta, azkenik, “BILBOKO ARTE MODERNO ETA GARAIKIDEAREN MUSEOAREN HIGIEZINA, SL”. Hori guztia arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babestea arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen arabera (aurrerantzean, “*Informatzaileak Babesteko Legea*”).

Politika hau landuta, GBMk konpromiso irmoa hartzen du betetze-kultura indartzeko eta laneko eta lanbideko testuinguruan ustez arau-haustek izateari buruz informazioa eman duen edozein langile, zuzendari edo hirugarren babesteko (aurrerantzean, “*Barne Informazio Sistema*”).

GBMk jarduten duen jurisdikzioetako betebeharren eta arauen letrak eta espiritua errespetatzen ditu, baita borondatez onartu dituenak ere, eta konpromiso irmoa erakusten du enpresa-arloko betetze-mailaren etika eta kulturarekiko.

Politika hau GBMren web orrialdean argitaratuko da, bereizitako eta erraz identifikatzeko moduko atalean. Honako hau da bertara sartzeko helbidea: <https://www.guggenheim-bilbao.eus/>

II. AURREKARIAK

GBMk Betetze Programa bat du, barne kontroleko eta zaintzako sistema gisa eratzeko dena, bere barruan delituak eta arau-haustek egitea saihesteko ahal den neurrian, edota, saihestu ezin badira, horiek egiteko arriskua nabarmen murrizteko edota ahalik eta azkarren detektatzea errazteko.

GBMren konpromisoa da GBMren izenean edo kontura lan egiten duten pertsona guztiek indarrean dagoen legeria nahiz GBMren barne politikak eta prozedurak zorrotz betetzea. Helburu hori lortzeko, GBMrekin lotutako edozein pertsonaren lankidetzatza

GUGGENHEIM BILBAO

funtsezkoa da prebentzio-lanean, egon daitezkeen portaera irregularrak identifikatzearen.

lido horretan, gaur egungo legediaren arabera, enpresek arriskuak prebenitzeko ereduak izateko beharra indartzen da; hau da, enpresako edozein kidek delitu edo arau-hauste bat egiteko arriskuaren aurrean prebenitzeko, detektatzeko eta erreakzionatzeko aukera ematen dioten kontrol-sistemak eta -mekanismoak. GBMk Barne Informazio Sistema bat sortu du Betetze Programa eraginkorra izan dadin; era horretan, egon daitezkeen arriskuei eta ez-betetzeei buruz informazioa emateko aukera ematen du, GBMren kultura etikoarekin eta betetzearekin bat eginez.

Politika honen bitartez, GBMk Barne Informazio Sistema ezarri eta ezagutzera ematen du; hau da, balio handiko tresna erakundearen irudia, ospea eta izena zaintzeko eta babesteko.

III. BARNE INFORMAZIO SISTEMA

GBMren Barne Informazioa Sistema kanalaren bidez, Legearen aplikazio-eremuan sartzen diren langileek, zuzendariak eta hirugarrenek ezagutzen duten edozein informazio salatu eta/edo jakinaraz dezakete, edozein bitarteko erabilita (formala edo ez), irregulartasunaren bat edo legearen kontrako egintzaren bat izatearen inguruan.

Barne Informazio Sistema:

- (i) “Aplikazio-eremu subjektiboa” hurrengo atalean aipatutako pertsona guztiei aukera ematen die aurrerago jorratuko den “Aplikazio-eremu objektiboa” atalean aurreikusitako arau-hausteen berri emateko.
- (ii) Modu seguruan diseinatuta, ezarrita eta kudeatuta dagoenez, informatzailearen eta komunikazioan aipaturiko edozein hirugarrenaren nortasunaren konfidentzialtasuna bermatzen da, baita komunikazioaren kudeaketan eta izapideetan garatzen diren jardueren ingurukoa ere. Era berean, datuak babestea bermatzen da, baimenik ez duten langileei sartzearagotziz. Gainera, Sistemak informatzailearen anonimotasuna bermatuko du, berak horrela eskatzen badu.
- (iii) Komunikazioak idatziz, ahoz edo bi modutara aurkezteko aukera ematen du.

GUGGENHEIM BILBAO

- (iv) Aurkeztutako komunikazioak modu eraginkorrean tratatu ahal izatea bermatzeko du, GBMren barruan, egon daitekeen irregulartasuna ezagutzen lehena erakundea bera izan dadin.
- (v) Jasotako salaketak kudeatzeko prozedura bat du.
- (vi) Eta, Betetze Programa gainbegiratzeko eta betetzen dela bermatzeko neurri moduan, kide anitzeko organo bat dago, GBMren Barne Informazio Sistemaren arduraduna izango dena eta sistema hori ezarrita egotea eta eraginkorra izatea zainduko duena.

IV. APLIKAZIO-EREMUA

1. Aplikazio-eremu subjektiboa

Politika hau aplikatuko zaie GBMrekin, zuzenean edo zeharka, harremana indarrean edo jada amaitua duten pertsona fisikoei, laneko edo lanbideko testuinguruan araus-hausteei buruzko informazioa eskuratu badute. Besteak beste, honako hauek sartuko dira:

- (i) GBMko langileak diren pertsonak.
- (ii) GBMko ugazabak, bazkideak eta zuzendaritza- eta ikuskapen-organoetako pertsonak, kide ez-exekutiboak barne.
- (iii) Kontratisten, azpikontratisten edo hornitzaileen ikuskaritzapean edo zuzendaritzapean lan egiten duen edozein pertsona.
- (iv) Boluntarioak, bekadunak, prestakuntza-aldiko langileak, ordainsaria jaso ala ez, edota lan-harremana oraindik hasi gabe dutenak, arau-hausteen inguruko informazioa kontratatu aurreko hautaketa- edo negoziazio-prozesuan lortu badute.

Aurrerantzean, aurreko guztiei batera “*Subjektu behartuak*” deituko zaie. Ondorioz, politika hau Subjektu Behartu guztien esku jarri behar da.

2. Aplikazio-eremu objektiboa

Barne Informazio Sistemaren bidez, honako jokabide hauek sala daitezke:

- (i) Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-haustea izan daitekeen edozein ekintza edo ez-egite, baldin eta:

GUGGENHEIM BILBAO

1. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2019ko urriaren 23an emandako 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren eranskinean adierazitako ekintzen aplikazio-eremuan sartzen badira, barne-ordenamendu juridikoak horien gainen egiten duen kalifikazioa kontuan hartu gabe. Zuzentarau hori Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteen berri ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa da;
 2. Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badiete, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 325. artikuluan jasotzen den moduan ("*EBFT*"); edo,
 3. Barne-merkatuan eragiten badute, EBFTren 26. artikuluko 2. atalean jasotako moduan, Europar Batasuneko arauen arau-haustek barne, lehiaren eta Estatuak emandako laguntzen arloan, edota barne-merkatuari buruzko arau-haustek, sozietateen gaineko zergaren arauak hausten dituzten egintzei dagokienez, edo sozietateen gaineko zergari aplikatu dakiokeen legediaren xedea edo helburua indargabetzen duen abantaila fiskala lortu nahi duten praktikei dagokienean.
- (ii) Ekintzek edo ez-egiteek arau-hauste penal edo administratibo larria edo oso larria eragiten badute. Edonola ere, Ogasun Publikoarentzat eta Gizarte Segurantzarentzat kalte ekonomikoa dakarten arau-hauste penal edo administratibo larri edo oso larri guztiak sartuko dira.
- (iii) Generoaren bidezko diskriminazio-egoerak badira, jazarpena dutenak, sexu-jazarpenaren eta sexua dela-eta egindako jazarpenaren modalitatean.

V. PRINTZPIOEN ADIERAZPENA

Politika hau egiteko, Barne Informazio Sistemaren eraginkortasuna bermatu nahiz sistema horretara sartzea errazteko behar diren neurri guztiak hartu nahi dituzten printzipio orokor batzuk hartu dira kontuan, sistema hori behar bezala erabiltzen duen edonoren konfidentzialtasuna, babesa eta eskubideak ziurtatuz.

Aurrekoari erreparatuta, GBMren Barne Informazio Sistemaren Politika honako printzipio orokor hauek aplikatuz hartzen da:

1. Konfidentzialtasuna.- Barne Informazio Sistemak informatzailearen informazioaren eta identitatearen konfidentzialtasuna eta haren datu

GUGGENHEIM BILBAO

pertsonalak babestea bermatzen du. Datuak soilik ezagutuko dituzte jakinarazitako gertaerak eta, hala behar izanez gero, burutu beharreko ekintzak ikertzeko prozesuan esku hartu behar duten pertsonak.

2. Sarbidea.- Barne Informazio Sistemara sartu ahal izango du Politika hau aplikatzeko eremuan aurkitzen den edonork: Subjektu Behartuak.
3. Salaketa anonimoak jartzeko aukera.- Barne Informazio Sistemak aukera emango du modu anonimoan aurkeztutako salaketak jasotzeko, eta salaketa horiek anonimotasunaren inguruko mugekin izapidetuko dira, Informatzaileak Babesteko Legean ezarritakoaren arabera.
4. Errepresalien kontrola.- GBMren Barne Informazio Sistemaren arduradunak Barne Informazio Sistema behar bezala erabili duen pertsona baten aurka sor daitekeen edozein errepresalia jazarri eta minimizatu beharko du. Era berean, hasitako ikerketaren ikerketan eta ebazpenean informatzaileari lagundu behar dion edozein pertsona babestu beharko du.
5. Errugabetasun-presuntzioa eta defentsa-eskubidea.- GBMren Barne Informazio Sistemaren arduradunak salatutako pertsonaren errugabetasun-presuntzioaren printzipioan eta defendatzeko duen eskubidean oinarrituta jardun beharko du, eta, ikerketa-prozesuan zehar, salatutako gertaeren gaineko alegazioak egiteko aukera emango dio salatua izan den pertsonari, dagozkion eskubide guztien berri ematearekin batera, balio-epaiketarik egin gabe ikerketa amaitu eta ebazpen objektiboa eskuratu arte.
6. Hedapena eta komunikazioa. – Barne Informazio Sistemaren existentziaren eta prozeduren berri emango zaie Subjektu Behartuei, barne-komunikazioen bidez edota GBMren web gunearen bidez (<https://www.guggenheim-bilbao.eus/>); bertan, Barne Informazio Sistema erabiltzeari buruzko informazioa ez ezik, kudeaketa-prozeduren oinarritzko printzipioei buruzkoa ere argitaratuko da.
7. Txostenak eta jarraipena.- Jasotako salaketa guztien, burututako ikerketen eta hartutako ekintzen erregistroak egingo dira, eta, ahal denean, aurrerapenen berri emango zaio informatzaileari. Era berean, Barne Informazio Sistemaren ebaluazioak egin beharko dira aldizka, hobetzeko arloak eta etengabeko eraginkortasuna identifikatzearen.

GUGGENHEIM BILBAO

8. Interes-gatazken independentzia, inpartzialtasuna eta gatazkarik eza.- Barne Informazio Sistema erabiltzen duen edo sistema horren ardura duen kide anitzeko organoko kide den edonork berariaz jakinarazi beharko du kasu edo ikerketa jakin batek interes-gatazkaren kausa dakarren eta, beraz, prozesuan zehar hartutako erabakietan independentzia bermatzeko moduan ez dagoela.
9. Salaketen izapidetze eraginkorra.- GBMren Barne Informazio Sistemaren arduradunak bermatu behar du aurkeztutako salaketak GBMren Salaketak Kudeatzeko Prozedura zorrotz betez izapidetzen direla.
10. Sentsibilizazioa eta prestakuntza.– GBMk sentsibilizazio- eta prestakuntza-neurriak hartuko ditu langile eta zuzendarientzat, eta erakunde osora zabalduko ditu.
11. Erantzukizuna.–
 - (i) Langileek eta zuzendariak indarrean den legediaren eta GBMren barne-politiken eta -prozeduren aurkako edo arau-hauste penal edo administratibo larria edo oso larria izan daitekeen edozein ekintzaren edo ez-egiteren berri eman behar dute.
 - (ii) Barne Informazio Sistemaren arduradunak Sistema horrek behar bezala funtzionatzen duen gainbegiratu beharko du; halaber, haren ardura izango da Politika hau definitzen duten printzipioen integrazio egokia eta Barne Informazio Sistemak jasotako edozein komunikazioen izapidetze arduratsua gainbegiratzea.
 - (iii) GBMren gobernu-organoen ardura da erakundeko kide guztiek Betetze Programa aplikatzen dutela bermatzeko neurriak hartzea eta arau-haustek egiteko arriskua minimizatzea.

VI. BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN ARDURADUNA

GBMren Barne Informazio Sistemaren arduraduna Betetze Batzordea bera da, eta batzordeko kide baten esku utziko ditu kudeaketako eta izapidetzeko ahalmenak.

GBMren Barne Informazio Sistemaren arduraduna arduratuko da Sistema horrek behar bezala funtzionatzen duela gainbegiratzeaz eta Politika hori definitzen duten

GUGGENHEIM BILBAO

printzipioak Betetze Programaren antolamenduaren eta aplikazioaren eremuan behar bezala integratzeaz.

GBMren Barne Informazio Sistemaren arduradunak, kide anitzeko organo gisa, kide baten esku utziko ditu Sistema kudeatzeko eta salaketak izapidetzeko lanak (aurrerantzean, “*Kudeaketako ordezkaria*”), eta kide hori arduratuko da Barne Informazio Sistemak jasotako edozein komunikazio modu arduratsuan izapidetzeaz. Era horretan, bere funtzioak Politika honetan jasotako printzipioen arabera beteko ditu.

Kide anitzeko organoa osatzen duten pertsonen izendapena nahiz kargu-uztea, GBMren Barne Informazio Sistemaren arduraduna, Informatzailea Babesteko Agintaritza Independenteari (IBA) edo, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko eskumeneko Agintaritzari jakinarazi beharko zaio, hurrengo hamar (10) egun balioduneko epean, kargua utziz gero, horren arrazoiak zehaztuz.

VII. GAINBEGIRATZEA ETA BERRIKUSTEA

Politika honen edukia gutxienez urtero berrikusiko du Barne Informazio Sistemaren arduradunak, GBM jardunbide egokienetara egokitzen dela ziurtatzeko.

Politika honen gainean edozein eguneratze edo aldaketa egiten bada, GBMko gobernu-organismoek onartu beharko dute.

Dokumentu hau GBMko gobernu-organismoek onartu dute, langileen legezko ordezkariari aldez aurretik kontsulta eginda, eta indarrean jarriko da onartzen den unetik aurrera.